(https://www.bizkaia.eus/eu/datuen-babesa).

6. oinarria. *Aplikatu beharreko araudia.*

Foru-dekretu honetan aurreikusitako dirulaguntzak dekretuan bertan eta eskabideak ebazteko foru-aginduetan ezarritakoaren arabera arautuko dira.

Era berean, honako arau hauek ezartzen dutena aplikatuko da: 5/2005 Foru Araua, maiatzaren 31koa, dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duena; Bizkaiko Foru Aldundiaren 16/2018 Foru Dekretua, otsailaren 27koa, zeinaren bidez, batetik, aldatzen baita Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onartutako Dirulaguntzen Erregelamendua (Foru Administrazioak emaniko dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzen du) eta, bestetik, onartzen baita Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntzetarako prozeduretan klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei buruzkoak sartzeko gida; Bizkaiko Foru Aldundiaren 169/2014 Foru Dekretua, abenduaren 16koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra onesten duena; Ogasun eta Finantzen foru-diputatuaren 1305/2015 Foru Agindua, ekainaren 18koa, dirulaguntzen arloko gastua fiskalizatzeko prozedura onesten duena; 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa eta hura garatzeko arautegia; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 4/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Administrazio Elektronikoaren esparruan Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionala arautzen duena; 3/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Administrazio Elektronikoaren esparruan Segurtasuneko Eskema Nazionala arautzen duena, eta beste edozein arau xedapen, duen izaeragatik ezartzeko modukoa baldin bada.
Halaber, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa ere aplikatuko da, baita subsidiarioki edo ordezko gisa aplikatzekoa den gainerako araudia ere.

II. KAPITULUA
BERARIAZKO XEDAPENAK

7. oinarria. *Emateko prozedura.*

Foral de Bizkaia (https://web.bizkaia.eus/es/proteccion-de-datos).

Base 6. *Normativa aplicable.*

Las subvenciones previstas en este Decreto Foral se regirán por lo establecido en el mismo y en las Ordenes Forales de resolución de las solicitudes.

Igualmente, será de aplicación lo establecido en la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, de Régimen Jurídico General de Subvenciones; el Decreto Foral de Bizkaia 16/2018, de 27 de febrero, que modifica el Reglamento de Subvenciones, por el que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, y aprueba la guía para la inclusión de cláusulas sociales, medioambientales y relativas a otras políticas públicas en los procedimientos de subvenciones de la Diputación Foral de Bizkaia; el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 169/2014, de 16 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento General Presupuestario del Territorio Histórico de Bizkaia; en la Orden Foral del Diputado Foral de Hacienda y Finanzas 1305/2015, de 18 de junio, por el que se aprueba el procedimiento para fiscalización del gasto en materia de concesión de subvenciones, y subvenciones públicas, la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y su normativa de desarrollo, así como la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público de las Administraciones Públicas, el Real Decreto 4/2010, de 8 de enero, por el que se regula el Esquema Nacional de Interoperabilidad en el ámbito de la Administración Electrónica; el Real Decreto 311/2022, de 3 de mayo, por el que se regula el Esquema Nacional de Seguridad y cualquier otra disposición normativa que por su naturaleza pudiera resultar de aplicación.

Asimismo, también será de aplicación la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, así como la restante normativa que resulte de aplicación con carácter subsidiario o supletorio.

CAPÍTULO II
DISPOSICIONES ESPECÍFICAS

Base 7. *Procedimiento de concesión.*

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: YIOX-HQJQ-O8ZF-BHXV
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

1. Norgehiagokarik gabeko prozedura erabiliko da.

Foru-dekretu honen ondorioetarako, hau da norgehiagokarik gabeko prozedura: eskaerak jaso ahala banatuko dira funtsak —baldin eta eskabideok deialdian ezarrita dauden betekizunak betetzen badituzte—, harik eta aurrekontuko zuzkidurak agortu arte, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20.1 artikuluan eta arau hori garatzen duten arauetan eta foru-dekretu honetan xedatutakoarekin bat etorrita.

2. Deialdian jasotako aurrekontu ekonomikoa nahikoa bada kalkulatutako zenbatekoei erantzuteko, eskatzaile guztiei emango zaie dirulaguntza, zenbateko horietan.

3. Deialdiaren aurrekontu-zuzkidura eskaera guztietarako nahikoa ez bada, organo eskudunak modu proportzionalean banatuko du dirulaguntzetarako gehieneko guztizko zenbatekoa, hainbanaketaren bidez, dirulaguntzaren onuradunen artean.

8. oinarria. *Ebazpena. Prozedura instruitzeko eskumena duen organoa.*

1. Eskabideak Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Saileko Nekazaritza Zerbitzuak izapidetuko ditu. Zerbitzu hori izango da prozeduraren organo instruktorea, eta ofizioz egingo ditu ebazteko eskumena duen organoari ebazpen-proposamena egiteko oinarritzat hartuko diren datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituen jarduketa guztiak.

2. Eskabideak Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko foru-diputatuak ebatziko ditu, Nekazaritza Zerbitzuko buruaren proposamena kontuan hartuta, Nekazaritza Zuzendaritzaren oniritzia jaso ondoren.

Eskabideak jakinarazteko epea, gehienez ere, 6 hilabete izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta biharamunetik aurrera. Ordurako ez bada ebazpen espresurik eman, ukatutzat joko dira dirulaguntzen eskabide horiek, ezertan eragotzi gabe Administrazioak espresuki ebazteko duen eginbeharra.

Ebazpena arrazoitua izango da eta laguntza ematen zaien eskatzaileen zerrenda jasoko du, eta, hala badagokio, espresuki, gainerako eskabideen ezespena.

1. El procedimiento será de libre concurrencia.

Se entiende a los efectos del presente Decreto Foral, como libre concurrencia, el procedimiento mediante el cual se distribuyen los fondos según se reciban las peticiones, de acuerdo con el artículo 20.1 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo y normas de desarrollo y lo dispuesto en este Decreto Foral, siempre que reúnan los requisitos establecidos en la convocatoria hasta que las dotaciones presupuestarias lo permitan.

2. Si la dotación económica contenida en la convocatoria alcanzara para atender a las cantidades calculadas se procederá a conceder a todas las solicitantes por el importe de las mismas.

3. En el supuesto de que la dotación presupuestaria establecida no alcanzase para atender a la totalidad de las solicitudes, el órgano competente procederá al reparto proporcional mediante prorrateo entre las personas beneficiarias de la subvención, del importe global máximo destinado a la subvención.

Base 8. *Resolución. Órgano competente para la instrucción del procedimiento.*

1. Las solicitudes serán tramitadas por el Servicio Agrícola del Departamento de Medio Natural y Agricultura, que será el órgano instructor del Procedimiento, que realizará de oficio cuantas actuaciones estime necesarias para la determinación, conocimiento y comprobación de los datos en virtud de los cuales deba formularse la propuesta de resolución al Órgano competente para resolver.

2. Las solicitudes serán resueltas mediante Orden Foral de la Diputada de Medio Natural y Agricultura a propuesta de la Jefatura del Servicio de Agrícola previo visto bueno de la Dirección de Agricultura.

El plazo máximo para la resolución de las solicitudes será de 6 meses a contar desde el día siguiente de la finalización del plazo de presentación de solicitudes, considerándose desestimadas las peticiones de subvención si no recayera resolución expresa a dicha fecha, sin perjuicio de la obligación del órgano concedente de resolver expresamente las mismas.

La resolución será motivada e incluirá la relación de personas solicitantes a las que se concede la subvención y, en su caso, de manera expresa, la

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: YIOX-HQJQ-O8ZF-BHXV
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

desestimación del resto de solicitudes.

Ebazpen hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta jakinarazpenaren ondorioak izango ditu urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1.b) artikuluan xedatutakoarekin bat. Halaber, interesdunei jakinaraziko zaie.

Esta resolución será publicada en el Boletín Oficial de Bizkaia surtiendo los efectos de la notificación, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 45.1.b) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre. Asimismo, será comunicada a las personas interesadas.

3. Ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari, eta, haren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da jurisdikzio-ordena horretan eskumena duen Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan. Hala ere, aukerako berraztertzeko errekurtsoa ere jar daiteke, Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Saileko foru-diputatuari zuzenduta, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluen arabera.

3. La resolución pondrá fin a la vía administrativa y contra la misma podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco competente de este Orden Jurisdiccional, sin prejuicio de la interposición, con carácter potestativo, de acuerdo con los artículos 123 y 124 de la ley 39 /2015 de 1 de octubre de recurso de reposición ante la diputada foral del Departamento de Medio Natural y Agricultura.

9. oinarria. *Beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna.*

Base 9. *Compatibilidad con otras subvenciones.*

1. Foru-dekretu honetako dirulaguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administraziok edo ente publikok zein pribatuk edo organismok ematen dituen dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, baldin eta gastu hautagarri beretarako gehieneko laguntza-intentsitatea errespetatzen bada. .

1. Las subvenciones del presente Decreto Foral serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, estatales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, siempre que se respeten para los mismos gastos elegibles la intensidad de la ayuda máxima.

2. Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa ez da inoiz izango diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa, ez bakarrik, ez beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera.

2. El importe de la subvención concedida en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

3. Aurreko mugaren bat gaindituz gero, eman beharreko edo emandako dirulaguntzari kendu egingo zaio soberakinari dagokion kopurua.

3. En caso de superarse alguno de los límites anteriores la subvención a conceder o concedida se minorará en la cantidad que corresponda al exceso.

4. Erakunde onuradunek, diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk lortuz gero, Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailari jakinarazi beharko diote halakoak lortu dituztela, jakin bezain laster, eta, nolanahi ere, funtsei emandako erabilera justifikatu aurretik, eta, hala badagokio, egindako itzulketa-gutunaren kopia erantsi beharko dute. Hori guztia 5/2005 Foru Arauaren 18. artikuluaren 3. eta 4. Apartatuetan xedatutako ondorioetarako eta dirulaguntza emateko ebazpena aldatu ahal izateko eta,

4. Las entidades beneficiarias deberán comunicar al Departamento de Medio Natural y Agricultura, tan pronto como se conozca y, en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación dada a los fondos, la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien las actividades subvencionadas, acompañando copia de la carta de reintegro que, en su caso, hubiera realizado. Todo ello a los efectos previstos en el artículo 18.3 y 4 de la Norma Foral 5/2005, de manera que pueda modificarse la resolución de la concesión de la subvención y, en su

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: YIOX-HQJQ-O8ZF-BHXV
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

hala badagokio, itzultzeko prozedura hasteko.

10. oinarria. *Dirulaguntza aldatzea.*

1. Erakunde onuradunek, diruz lagundutako jarduera egiteko epea amaitu baino lehen, baimena eska dezakete dirulaguntza emateko ebazpenean aldaketak egin ahal izateko, hala nola, finkatutako epeak luzatzea, emandako zenbatekoa murriztea edo jarduera osatzen duten ekintzak aldatzea. Aldaketa horiek baimenduko dira ezohiko inguruabarrak daudenean edo jarduketa ondo gauzatzeko beharrezkoak direnean, betiere dirulaguntzaren xedea edo helburua aldatzen ez bada eta hirugarrenen eskubideei kalterik eragiten ez bazaie.

Diruz lagundutako jarduera egiteko epea amaitu baino gutxienez hilabete (1) lehenago aurkeztu beharko dira aldaketa-eskaerak.

2. Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko foru-diputatuak, foru-agindu bidez, ofizioz aldatu ahal izango du dirulaguntza emateko ebazpena, interesdunari entzun ondoren eta funtsak aplikatu aurretik, baldin eta emakidarako kontuan hartutako baldintzak aldatzeak lortu nahi den interes publikoa lortzea eragozten edo zailtzen badu eta onuradunari kalte ekonomikorik eragiten ez bazaio.

3. Dirulaguntzaren onuradunak justifikazioan adierazten badu aldaketa batzuk egon direla dirulaguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzetan, dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea ekar lezaketenak, eta aldaketa horiek guztiak onartzeko ez bada bete aurretik bete beharreko baimen administratiboko izapidea, orduan, dirulaguntza eman duen organoak onartu egin dezake aurkeztutako justifikazio hori, betiere onartze horrek ez badie kalterik eragiten hirugarrenen eskubideei; hala ere, horrek ez du salbuesten onuraduna 5/2005 Foru Arauaren arabera izan ditzakeen zehapenetatik.

11. oinarria. *Diruz lagundutako jarduera gauzatzeko epea.*

1. Diruz lagundutako jarduerak edo proiektuak 2024an gauzatu beharko dira.

2. Salbuespen gisa, Ingurune Naturala eta Nekazaritza

caso, iniciar el correspondiente procedimiento de reintegro.

Base 10. *Modificación de la subvención.*

1. Las entidades beneficiarias podrán solicitar antes de que concluya el plazo para la realización de la actividad subvencionada, modificaciones de la resolución de concesión que supongan ampliación de los plazos fijados, reducción del importe concedido o alteración de las acciones que se integran en la actividad, que serán autorizadas cuando traigan su causa en circunstancias imprevistas o sean necesarias para el buen fin de la actuación, siempre que no se altere el objeto o finalidad de la subvención y no se dañen derechos de terceros.

Las solicitudes de modificación se deberán presentar con una antelación mínima de un (1) mes sobre la fecha finalización del plazo para la realización de la actividad subvencionada.

2. La diputada foral de Medio Natural y Agricultura, mediante Orden Foral podrá modificar de oficio la resolución de concesión, previa audiencia de la persona interesada y antes de la aplicación de los fondos, cuando la alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión impida o dificulte la consecución del interés público perseguido y no se irroguen perjuicios económicos a la persona beneficiaria.

3. Cuando las entidades beneficiarias de la subvención ponga de manifiesto en la justificación que se han producido alteraciones de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la misma que hubieran podido dar lugar a la modificación de la resolución, habiéndose omitido el trámite de autorización administrativa previa para su aprobación, el órgano concedente de la subvención podrá aceptar la justificación presentada, siempre y cuando tal aceptación no suponga dañar derechos de terceros, y sin que ello exima la persona beneficiaria de las sanciones que puedan corresponder con arreglo a la Norma Foral 5/2005.

Base 11. *Plazo de ejecución de la actividad subvencionada.*

1. Las actividades o proyectos subvencionados deberán ejecutarse durante el año 2024.

2. Excepcionalmente, la diputada foral de Medio

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: YIOX-HQJQ-O8ZF-BHXV
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

Sustatzeko Saileko foru-diputatuak gauzatzeko epea luzatu ahal izango du, gehienez ere epearen erdia, inguruabarrak direla-eta komenigarritzat jotzen bada eta hirugarren batzuen eskubideei kalterik egiten ez bazaie, hurrengo apartatuetan ezarritako baldintzetan.

3. Onuradunak gauzatzeko epea luzatzeko eskatu ahal izango du, baldintza hauek betez gero:

a) Alegatutako arrazoia gertatu eta berehala eskatu beharko da, izandako edo izan daitekeen atzerapena egiaztatzeko moduan, eta, nolanahi ere, gauzatzeko epea amaitu baino hilabete (1) lehenago, gutxienez.

b) Gauzatzeko epea luzatzea eragin duen eta onuradunaren doloari, erruari edo zabarkeriari egotzi ezin zaion kausa adierazi beharko da.

c) Ustekabeko kasua eta ezinbesteko kasua gertatuz gero, kontuan hartuko da gauzatzeko espea luzatzeko eskaera ebazteko.

d) Eskabidearekin batera honako hauek aurkeztu beharko dira: alegatutako arrazoia egiaztatzen duen dokumentazioa, izandako edo izan daitekeen atzerapena egiaztatzen eta justifikatzen duen dokumentazioa, eta, ondorioz, eta, ondorioz, zer luzapen-epe eskatzen den, bai eta dirulaguntzaren kudeaketaz arduratzen den zerbitzuak beharrezkotzat jotzen duen beste edozein agiri ere.

e) Epea amaitu baino lehen egin behar du interesdunak epea luzatzeko eskaera, eta epearen barruan hartu behar da hari buruzko erabakia ere. Ezin izango da inola ere luzatu amaitutako epe bat. Epeak luzatzeari edo luzapenak ukatzeari buruzko erabakien aurka ezin izango da errekurtsorik jarri, hargatik eragotzi gabe prozedura amaitzen duen ebazpenaren kontra dagokiona jartzeko aukera.

Inola ere ez da emango hurrengo urteko martxoaren 1etik aurrerako gauzatze-epea dakarren luzapenik.

12. oinarria. *Emandako dirulaguntzari uko egitea.*

1. Dirulaguntzen Erregelamendua onartzen duen martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 48.3 artikuluan arautatako kasuaren arabera, pertsona edo erakunde onuradunen batek dirulaguntzari uko egiten

Natural y Agricultura podrá otorgar una ampliación del plazo de ejecución que no exceda de la mitad de los mismos, si las circunstancias lo aconsejan y con ello no se perjudican derechos de tercero en los términos establecidos en los apartados siguientes.

3. Las entidades beneficiarias podrán solicitar la ampliación del plazo de ejecución cumpliendo las siguientes condiciones:

a) Deberá solicitarse de manera inmediata a que se produzca la causa alegada y se pueda acreditar la demora sufrida o que pueda sufrirse y, en todo caso, con una antelación mínima de un (1) mes sobre la fecha de finalización del plazo de ejecución.

b) Deberá indicarse la causa sobrevenida que motiva la ampliación del plazo de ejecución y que no puede ser imputable al dolo, culpa o negligencia de la persona beneficiaria.

c) El caso fortuito y la fuerza mayor, de concurrir, serán factores que se tendrán en cuenta para resolver sobre la ampliación que se solicite.

d) La solicitud deberá venir acompañada de la documentación acreditativa de la causa alegada, de la documentación que acredite y justifique la demora sufrida o a sufrir y, en consecuencia, el plazo de ampliación solicitado, así como de cualquier otra documentación que estime conveniente requerir el Servicio que se encarga de la gestión de la subvención.

e) Tanto la petición de las personas interesadas como la decisión sobre la ampliación deberán producirse, en todo caso, antes del vencimiento del plazo de que se trate. En ningún caso podrá ser objeto de ampliación un plazo ya vencido. Los acuerdos sobre ampliación de plazos o sobre su denegación no serán susceptibles de recurso, sin perjuicio del procedente contra la resolución que ponga fin al procedimiento.

En ningún caso se otorgará una ampliación que conlleve un plazo de ejecución más allá del 1 de marzo del año siguiente.

Base 12. *Renuncia a la subvención concedida.*

1. De acuerdo con el supuesto regulado en el artículo 48.3 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el reglamento de subvenciones, en caso de renuncia a la subvención de alguna de las personas o

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: YIOX-HQJQ-O8ZF-BHXV
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

badio, dirulaguntza ematen duen organoak erabaki ahal izango du, beste deialdirik egin beharrik gabe, puntuazio-hurrenkeran hurrengo dauden pertsona edo erakunde eskatzaileei ematea dirulaguntza, puntuazioaren arabera, betiere aurrekontuko eskaerei erantzuteko kreditu nahikoa liberatu bada.

entidades beneficiarias, el órgano concedente podrá acordar, sin necesidad de nueva convocatoria, la concesión de la subvención a las personas o entidades solicitantes siguientes en orden de puntuación, siempre y cuando se haya liberado crédito suficiente para atender las solicitudes de que se trate de conformidad con las consignaciones presupuestarias del ejercicio en cuestión.

2. Dirulaguntza ematen duen organoak aukera horren berri emango die interesdunei, dirulaguntzaren proposamena onar dezaten hamar eguneko epearen barruan; epe hori ezin izango da luzatu. Behin pertsona edo erakunde eskatzaileek proposamena onartu ondoren, administrazio-organoak dirulaguntza emateko egintza emango du, eta haren jakinarazpena egingo du.

2. El órgano concedente comunicará esta opción a las interesadas, a fin de que acepten la propuesta de subvención en el plazo improrrogable de diez días. Una vez aceptada la propuesta por las personas o entidades solicitantes, el órgano administrativo dictará el acto de concesión y procederá a su notificación

3. Uko egitea aurkezteko gehieneko epea hamar (10) egun baliodunekoa izango da, ebazpena erakunde interesdunari jakinarazten zaionetik edo ebazpena ematen duen foru-agindua argitaratzen denetik hasita. Epe hori igarota, uko egite oro dirulaguntza emateko baldintzen ez-betetzetzat joko da.

3. El plazo máximo para poder presentar una renuncia será de diez (10) días hábiles desde la notificación de la resolución a la entidad interesada o la publicación de la Orden Foral de resolución. Transcurrido ese plazo, cualquier renuncia tendrá la consideración de incumplimiento de las condiciones por las que se ha otorgado la subvención.

13. oinarria. *Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa eta ordainketa.*

Base 13. *Cuantía y abono de la subvención concedida.*

1. Elkarte bakoitzari emandako dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa honako hau izango da: emandako azalera onargarria (hektareatan adierazita) bider 51 €/ha.

1. La cuantía máxima de la subvención concedida a cada Asociación será el equivalente al importe obtenido de la multiplicación de la superficie admisible concedida, expresada en hectáreas, por el valor de 51€/ha.

Foru-dekretu honen ondorioetarako, hau joko da azalera onargarritzat: deialdiaren urteko SIGPAC barrutiari dagokion azalera bider larreen onargarritasun-koefizientea (LOK).

A efectos de este Decreto Foral se entenderá como superficie admisible, la superficie correspondiente al recinto SIGPAC del año de la convocatoria, multiplicada por el Coeficiente de Admisibilidad de Pasto (CAP).

2. Ekintzetarako, obretarako edo inbertsioetarako emango den gehieneko laguntza ez da inoiz izango sastrakak garbitzeko lanetan erabilitako zenbatekoa baino handiagoa.

2. La ayuda máxima que se concederá para las acciones, obras o inversiones nunca será superior al importe empleado en las labores de desbroces.

3. Onuradunak belar-sastrakak garbitzeko lanetan erabili beharko du benetan egindako ekintzak eta inbertsioak justifikatu ondoren zehaztutako zenbatekoaren % 50, gutxienez.

3. La persona beneficiaria deberá destinar a labores de desbroce como mínimo el 50 % del importe determinado tras la justificación de las acciones e inversiones efectivamente realizadas.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: YIOX-HQJQ-O8ZF-BHXV
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

Dirulaguntza eman dela jakinarazi eta hilabeteko epearen barruan ordainduko da dirulaguntza osoa, eta aurretiaz egingo da ordainketa.

Se procederá al abono del total de la subvención concedida en el plazo máximo de un mes tras la notificación de la resolución de concesión procediéndose el pago anticipado de la subvención.

Kasu honetan, Dirulaguntzei buruzko Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 30.2. artikuluan xedatutakoarekin bat, ez da nahitaezkoa bermea ematea, diruz lagundutako jardueren izaera dela eta.

En este caso y en relación con lo establecido en el artículo 30.2 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, no se establece la necesidad de prestar garantía debido a la naturaleza de las actuaciones subvencionadas.

4. Dirulaguntza ordaindu aurretik, egiaztatuko da erakunde onuradunek egunean dituztela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, eta ez direla zordun itzulketa-prozeduraren ebazpen bat dela bide. Egindako egiaztapenaren ondorioz ikusten bada onuradunak ez dituela egunean zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, edo zorduna bada dirulaguntza itzultzeko prozedura baten ebazpena dela- eta, ezin izango da dirulaguntza ordaindu..

4. Antes de proceder a los pagos de la subvención se comprobará que las entidades beneficiarias se encuentran al corriente de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social y que no son deudoras por resolución de procedimiento de procedencia de reintegro. Si como consecuencia de la comprobación efectuada resulta que la persona beneficiaria no se halla al corriente de sus obligaciones tributarias y de Seguridad Social o por resolución de procedimiento de procedencia de reintegro, no podrá realizarse el abono de la subvención.

5. Emandako dirulaguntza banku-transferentzia bidez ordainduko da, dirulaguntzaren eskabidean izendatutako kontu korrontean.

5. La subvención concedida se abonará mediante transferencia bancaria a la cuenta corriente que se haya designado en la solicitud de la subvención.

Halaber, erakunde onuradunei laguntzak emateko eta, hala badagokio, ordaintzeko, ezinbestekoa izango da amaituta egotea Bizkaiko Foru Aldundiak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasi den eta oraindik izapidetzen ari den edozein itzulketa- edo zehapen-prozedura.

Así mismo, la concesión y, en su caso, el pago de las ayudas a las entidades beneficiarias, quedarán condicionados a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Diputación Foral de Bizkaia y sus organismos autónomos, se halle todavía en tramitación.

14. oinarria. *Pertsona edo erakunde onuradunaren betebeharrak*.

Base 14. *Obligaciones de la persona o entidad beneficiaria de la subvención*.

Eskaera aurkezten dutenetik, onuradunek konpromisoa hartzen dute Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Saileko langileei errazteko egin behar dituzten ikuskapen- eta kontrol-lanak.

Las entidades beneficiarias se comprometen, desde el momento en que formulan la solicitud, a facilitar las tareas de inspección y control del personal del Departamento de Medio Natural y Agricultura.

Gainera, foru-dekretu honetan eta dirulaguntzari buruzko espedientean ezarritako baldintzak betetzeko eta, dirulaguntza ordaintzen denetik, egindako inbertsioa 5 urtez mantentzeko konpromisoa hartuko du onuradunak.

La entidad beneficiaria se comprometerá al cumplimiento de las condiciones establecidas en este Decreto Foral y en el expediente de subvención, así como al mantenimiento de la inversión efectuada durante 5 años desde la fecha de abono de la subvención.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: YIOX-HQJQ-O8ZF-BHXV
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

Inbertsioa onuradunari egotz dakiokeen arrazoiren batengatik bertan behera uzten bada edo suntsitzen bada, ez-betetzetzat joko da eta dirulaguntza itzuli behar izatea eragin dezake.

El abandono o destrucción de la inversión por causa imputable a la persona beneficiaria será considerado incumplimiento y podría dar lugar al reintegro de la subvención.

Foru-dekretu honetan araututako dirulaguntzen onuradunek, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 13. artikuluan oro har ezarritako betebeharrez gainera, honako hauek ere bete behar dituzte:

Las entidades beneficiarias de las subvenciones reguladas en este Decreto Foral deberán cumplir, en todo caso además de las obligaciones establecidas con carácter general en el artículo 13 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, las siguientes:

a) Emandako dirulaguntza onartzea. Ildo horretatik, onuradunak hamar eguneko epearen barruan –dirulaguntza eman zaiola dioen jakinarazpena jasotzen duen egunetik aurrera– berariaz eta idatziz edo horretara argi bideratutako ekintzak eginez uko egiten ez badio dirulaguntzari, dirulaguntza onartutzat joko da.

a) Aceptar la subvención concedida. En este sentido, si en el plazo de diez días desde la fecha de recepción de la notificación de la concesión de la subvención la persona beneficiaria no renuncia expresamente y por escrito a la misma, así como en el caso de realización de actos inequívocos en tal sentido, se entenderá que ésta queda aceptada.

b) Dirulaguntza eman den helburu zehatzerako eta emateko ebazpenean edo -hala badagokio- likidatzeko ebazpenean ezarritako baldintzen arabera erabiltzea.

b) Utilizar la subvención para el destino concreto para el que se ha concedido y de conformidad con las condiciones establecidas en la Resolución de concesión o de liquidación en su caso.

c) Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailari eta Ogasun eta Finantza Sailari, Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ordaintzaileko organo eskudunei, Herri Kontuen Euskal Epaitegiari eta Europar Batasuneko erakunde eskudunei ematea, beren eskumenak erabilita, foru-dekretu honen kargura jasotako dirulaguntzei buruz eskatzen duten informazioa.

c) Facilitar a los Departamentos de Medio Natural y Agricultura y de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Bizkaia, Órganos competentes del Organismo Pagador de la Comunidad Autónoma del País Vasco, al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas y a los órganos competentes de la Unión Europea la información que le sea requerida en el ejercicio de sus funciones respecto de las subvenciones recibidas con cargo a este Decreto Foral.

d) Berdintasunaren arloko betebeharrak:

d) Obligaciones en materia de igualdad:

1. Pertsona fisiko edo juridikoek emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatu beharko dute lanpostuen definizioan, lanpostuetarako sarbidean, kontratazioan eta kontratua azkentzean, lanbide-sailkapenean, sustapenean, prestakuntzan, laneko segurtasun eta osasunean, ordainsari-politikan, erantzunkidetasunean eta bizitza pertsonala, lanekoa eta familiakoa uztartzeari dagokionez, lanaren kalitatean eta egonkortasunean, lanaldiaren iraupenean eta antolamenduan, eta ekintza sindikalean, ordezkaritzan eta negoziazio kolektiboan, eta lan-baldintza duinak, egokiak eta ez-diskriminatzaileak bermatuko dituzte.

1º Las personas físicas o jurídicas deberán promover la igualdad de mujeres y hombres en la definición de los puestos de trabajo, acceso, contratación y extinción, clasificación profesional, promoción, formación, seguridad y salud laboral, política retributiva, corresponsabilidad y conciliación de la vida personal, laboral y familiar, calidad y estabilidad laboral, duración y ordenación de la jornada laboral, y en la acción sindical, representación y negociación colectiva, asegurando unas condiciones laborales dignas, decentes y no discriminatorias.

2. Pertsona fisiko edo juridikoek zaindu beharko dute emakumeen eta gizonen tratamendua, protagonismoa

2º Las personas físicas o jurídicas deberán velar porque el tratamiento, protagonismo y valoración de mujeres y

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: YIOX-HQJQ-O8ZF-BHXV
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

eta balorazioa baliokideak direla, eta berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, erantzunkidetasunaren eta rol eta genero-identitate anitzen balioak dituen irudia sustatzen dutela, bai idatzizko informazioan, ahozkoan, ikonografikoan, publizitate-ekintzetan, barne- eta kanpo-komunikazioan, formalean eta informalean, bai proiektua edo jarduera gauzatzearekin sortutako edo lotutako materialetan.

hombres sea equivalente y el fomento de una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad, y pluralidad de roles e identidades de género, tanto en la información escrita, oral, iconográfica, acciones publicitarias, comunicación interna y externa, formal e informal como en los materiales generados o relacionados con la ejecución del proyecto o actividad.

3. Plantillan 50 langile baino gehiago dituzten pertsona fisiko edo juridikoek Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Legean aurreikusitako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana edukitzeko betebeharra betetzen dutela egiaztatu beharko dute, bai eta plan hori benetan aplikatzen dela ere.

3º Las personas físicas o jurídicas con una plantilla superior a 50 personas deberán acreditar el cumplimiento de la obligación de disponer de un Plan para la Igualdad de mujeres y hombres previsto en la Ley 3/2007, de 22 de marzo, para la Igualdad Efectiva de Mujeres y Hombres, así como de su aplicación efectiva.

4. Plantillan hamabost langile baino gehiago dituzten pertsona fisiko edo juridikoek bermatu beharko dute neurriak hartzen dituztela lan-esparruan indarkeria matxista prebenitzeko, haren kontra jarduteko, haren jarraipena egiteko, hura ebaluatzeko eta desagerrarazteko, bereziki sexu-jazarpenari eta sexuarengatiko jazarpenari dagozkion neurriak.

4º Las personas físicas o jurídicas con más de quince personas trabajadoras en plantilla deberán garantizar la adopción de medidas para prevenir, actuar, dar seguimiento, evaluar y erradicar la violencia machista en el ámbito laboral, y específicamente las relativas al acoso sexual y acoso por razón de sexo.

5. Laguntza jasotzen duten pertsonek edo erakundeek euskara erabili beharko dute diruz lagundutako jardueraren ondoriozko esku-hartze publiko guztietan, bai eta beren jardueraren berri emateko erabiltzen dituzten liburuxka, kartel edo bestelako euskarri guztietan ere..

5º Las personas o entidades perceptoras de la subvención deberán utilizar el euskera en todas las intervenciones públicas resultantes de la actividad subvencionada, así como en todos los folletos, carteles o cualquier otro soporte utilizado para dar publicidad de su actividad.

Gainera, Gardentasunari buruzko 2/2016 Foru Arauan araututako publikotasun aktiboari buruzko arauak aplikatuko zaizkie erakunde pribatuei, baldin eta aurrekontu-ekitaldian zehar Bizkaiko Foru Aldundiaren 100.000 euro edo gehiagoko laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen badituzte edo haien urteko diru-sarreren % 40 Aldundiaren laguntzetatik edo dirulaguntzetatik badator, betiere gutxienez 5.000 euro badira.

Además, resultarán de aplicación las normas de publicidad activa reguladas en la Norma Foral 2/2016 de Transparencia a aquellas entidades privadas que durante un ejercicio presupuestario perciban de la Diputación Foral de Bizkaia ayudas o subvenciones que alcancen al menos una cuantía de 100.000 euros o cuando el 40 por ciento del total de sus ingresos anuales tengan el carácter de ayuda o subvención pública foral, siempre que alcancen como mínimo 5.000 euros.

Diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoa 40.000,00 eurotik gorakoa denean, BEZa kanpo, obren kasuan, eta 15.000,00 eurotik gorakoa, BEZa kanpo, zerbitzuen eta horniduren kasuan, pertsona edo erakunde onuradunak eskabidearekin batera edo egindako jardueren justifikazioarekin batera aurkeztu beharko du gutxienez hornitzaile desberdinen hiru eskaintza eskatu izanaren egiaztapena, salbu eta diruz

Cuando el importe del gasto subvencionable supere las cuantías de 40.000,00 euros, I.V.A. excluido, en el caso de obras y 15.000,00 euros I.V.A. excluido, en el caso de servicios y suministros, la persona o entidad beneficiaria deberá aportar junto con la solicitud, o junto con la justificación de las actividades realizadas, de haber solicitado como mínimo tres ofertas de diferentes proveedores, salvo que por las especiales

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: YIOX-HQJQ-O8ZF-BHXV
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

lagundu daitezkeen gastuen ezaugarri bereziengatik merkatuan zerbitzu hori eman edo hornitzen duten erakundeen kopuru nahikoa ez badago. Aurkeztutako eskaintzen artean, proposamen ekonomikorik onena aukeratu beharko da, salbu eta eskatzaileak beste aukera bat egitea berariaz justifikatzen badu eta Nekazal Zerbitzuak onartzen badu.

15. oinarria. *Dirulaguntzaren onuradunak bere borondatez itzultzea.*

1. Borondatezko itzulketa da onuradunak berak organo emailearen inolako errekerimendurik gabe egiten duena.

2. Onuradunak foru-dirulaguntza itzultzeko, Bizkaiko Foru Ogasunaren eredu ofizialaren araberako ordainketa-gutuna erabili beharko du.

3. Borondatezko itzulketa egiten denean, dagozkion berandutze-interesak kalkulatuko dira, Dirulaguntzei buruzko Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritakoaren arabera, onuradunak itzulketa benetan egin duen unea arte.

16. oinarria. *Dirulaguntzaren justifikazioa. Epeak.*

2025eko martxoaren 1a baino lehen, elkarte onuradunek gastuen justifikazioa aurkeztu beharko diote Nekazaritza Zerbitzuari, eta azken egiaztagiri hauek aurkeztu beharko dituzte, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridikoa arautzen duen 5/2005 Foru Arauaren 28. artikuluan ezarritakoa betetzeko:

1. Egindako jarduerak justifikatzeko memoria teknikoa.

2. Diru-sarreren eta gastuen memoria ekonomiko xehatua, Dirulaguntzei buruzko Foru Arauaren Erregelamenduaren 57. artikuluan jasotako edukiarekin.

3. Fakturak edo merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio baliokidea duten dokumentuak (jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuak) eta ordaindu izanaren egiaztagiriak, Nekazaritza Zerbitzuari eskabidearekin batera edo emakida eman aurretik eman ez bazitzaizkio, xehetasun hauek kontuan hartuta:

características de los gastos subvencionables no exista en el mercado suficiente número de entidades que lo suministren o presten. La elección entre las ofertas presentadas deberá recaer en la propuesta económica más ventajosa, salvo que la persona solicitante justifique expresamente otra elección y sea aceptada por el Servicio de Agrícola.

Base 15. *Devolución voluntaria a iniciativa de la beneficiaria de la subvención.*

1. Se entiende por devolución voluntaria aquella que es realizada por la beneficiaria sin el previo requerimiento del órgano concedente.

2. La devolución de la subvención foral a instancia de la propia beneficiaria se deberá realizar mediante la correspondiente carta de pago según modelo oficial de la Hacienda Foral de Bizkaia.

3. Cuando se produzca la devolución voluntaria, se calcularán los intereses de demora de acuerdo con lo previsto en el artículo 34 de la Norma Foral de Subvenciones y hasta el momento en que se produjo la devolución efectiva por parte de la entidad beneficiaria.

Base 16. *Justificación de la subvención. Plazos.*

Con anterioridad al 1 de marzo de 2025, las entidades asociativas beneficiarias deberán presentar ante el Servicio Agrícola la justificación de los gastos, aportando la siguiente documentación justificativa final al objeto de cumplir con lo establecido en el artículo 28 de la Norma Foral 5/2005 que regula el régimen jurídico de las subvenciones otorgadas por la administración foral:

1. Memoria técnica justificativa de las actuaciones realizadas.

2. Memoria económica detallada de ingresos y gastos con el contenido recogido en el artículo 57 del Reglamento de la Norma Foral de Subvenciones.

3. Las facturas o documentos de valor probatorio equivalente en el tráfico jurídico mercantil (originales o fotocopias compulsadas) y la documentación acreditativa de su pago que no se hubiera entregado al Servicio de Agrícola con la solicitud o con anterioridad al momento de concesión, atendiendo al siguiente detalle:

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: YIOX-HQJQ-O8ZF-BHXV
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

a) Eskudirutan ordaindutako fakturak: Zigilua, sinadura eta sinatzailearen datuak dituen faktura, edo jaso izanaren agiria, sinatzaileen datuak dituena. Ezin izango dituzte ezarritako legezko mugak gainditu. 1.000 euro (11/2021 Legea, iruzurra prebenitzeko eta haren aurka borrokatzeko neurriena).

a) Facturas pagadas en metálico: Factura con sello, firma y datos de la persona que firma o recibí con los datos del firmante. No podrán superar los límites legales establecidos. 1.000 euros (Ley 11/2021 de medidas de prevención y lucha contra el fraude).

b)Txekearekin edo ordaindukoarekin ordaindutako fakturak: zigiludun faktura eta txekearen edo ordaindukoaren datuak.

b) Facturas pagadas con cheque o pagarés: Factura con sello y datos del cheque o pagaré.

c) Transferentzia bidez ordaindutako fakturak: zigiludun faktura eta banku-frogagiriaren kopia.

c) Facturas pagadas mediante transferencia: Factura con sello y copia del resguardo bancario.

d) Zinpeko aitorpena, belar-sastrakak kentzeko lanak elkarte onuraduneko kideen bitarteko propioekin egin direla egiaztatzeko.

d) Declaración jurada de los trabajos de desbroces realizados con medios propios de las personas miembro de la asociación beneficiaria.

Egiaztapen hori amaitutakoan, Nekazaritza Zerbitzuak dagokion egiaztapen-akta egingo du.

Finalizada esta comprobación, el Servicio Agrícola emitirá el correspondiente informe de comprobación.

Dekretu honetan aurreikusitako laguntzak eman eta ordaindu ahal izateko, onuradunek zerga-betebeharrak eta zuzenbide publikokoak eta Gizarte Segurantzako gainerako betebeharrak beteta dituztela egiaztatu beharko dute. Inguruabar hori eskabidea aurkeztean bete beharko dute, bai eta laguntza emateko orduan, betebeharra onartzean eta ordainketa egitean ere. Titularkidetasunen kasuan, titularkidetasuna osatzen duten pertsona guztiei dagokie egiaztapen hori.

La concesión y el pago de las ayudas previstas en el presente Decreto queda condicionada a la acreditación por parte de las beneficiarias del cumplimiento de sus obligaciones tributarias y demás de derecho público y frente a la Seguridad Social, circunstancia ésta que deberá acreditarse con la presentación de la solicitud y mantenerse en el momento de la concesión, en el reconocimiento de la obligación y en el pago. En el caso de cotitularidades, esta acreditación corresponde a todas las personas que forman parte de la cotitularidad.

17. oinarria. *Ez-betetzea eta itzulketa.*

Base 17. *Incumplimiento y reintegro.*

1. Erakunde onuradunak betetzen ez baditu foru-dekretu honetan zein emandako dirulaguntza onesteko ebazpenean ezarritako baldintzak eta helburua, edo behar diren baldintzak bete gabe lortzen badu dirulaguntza, emandako dirulaguntza jasotzeko eskubidea galduko du eta, hala badagokio, jasotako diru-kopuruak zein aplikatu beharreko legezko interesak itzuli beharko dizkio Bizkaiko Foru Ogasunari. Nolanahi ere, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauan xedatutakoarekin bat etorriz, bestelako neurriak ere ezarri ahal izango dira. Diru-kopuru horiek diru-sarrera publikotzat joko dira, dagozkien legezko ondorioetarako.

1. El incumplimiento por parte de la entidad beneficiaria de las condiciones y finalidad establecidas en este Decreto Foral y en la resolución aprobatoria respecto de la subvención concedida, así como su obtención sin reunir las condiciones requeridas para ello, implicará la pérdida del derecho a percibir la ayuda concedida y, en su caso, la obligación de reintegrar a la Hacienda Foral de Bizkaia las cantidades que hubiere percibido, así como los intereses legales que resulten de aplicación, sin perjuicio de las acciones que procedan, conforme a lo dispuesto en la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral. Dichas cantidades tendrán la consideración de ingresos públicos a los efectos legales pertinentes.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: YIOX-HQJQ-O8ZF-BHXV
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

Jarduera baterako ematen diren laguntzak beste xede baterako erabiliz gero, itzuli egin beharko da dirulaguntza.

La aplicación de las ayudas a fines distintos de aquellos para las que fueron concedidas dará lugar al reintegro de la subvención concedida.

Erakunde eskatzaileak daturen bat ezkutatzen badu, dirulaguntza itzultzeko eskatzea ekarri ahal izango du, bai eta kasuan-kasuan dagozkion berandutze-interesak ordaintzea ere.

La ocultación de datos por parte de la solicitante podrá dar lugar a la exigencia del reintegro de la subvención concedida más los intereses de demora correspondientes.

Erakunde onuradunaren betetze-maila erabateko betetze-mailatik oso hurbil badago eta bere konpromisoak zalantzarik gabe beteko dituela egiaztatzen badu, benetan egin diren jardueren kostuak kontuan hartuta zehaztuko da zer zenbateko itzuli behar den, kasu bakoitzaren inguruabarrak aztertu ondoren.

Si el cumplimiento por la entidad beneficiaria se aproximare de modo significativo al cumplimiento total y se acreditare por ésta una actuación inequívoca tendente a la satisfacción de sus compromisos, la cantidad a reintegrar atendidas las circunstancias del caso se determinará en proporción a los costes de las actuaciones efectivamente realizadas.

Erakunde onuradunak gehiegizko finantzaketa itzuli beharko du, eta berandutze-interesak ordaindu, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoarekin bat.

Dicho exceso de financiación deberá ser reintegrado por la entidad beneficiaria, junto con los intereses de demora que correspondan, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 33 y siguientes de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo.

Gainera, beste dirulaguntza batzuekin batera gehiegizko finantzaketa lortzen bada jardueraren kostuarekiko, onuradunak itzuli egin beharko du soberakin hori, eta berandutze-interesak ordaindu.

Asimismo, si en el caso de concurrencia con otras ayudas, se produjera un exceso de financiación respecto del coste de la actividad, la beneficiaria deberá reintegrar el exceso junto con los correspondientes intereses de demora.

2. Jasotako dirulaguntza itzuli beharko da, eta dagokion berandutze-interesa eskatu beharko da, dirulaguntza ordaintzen denetik dirua itzuli behar dela erabakitzen den egunera arte, eta, hala badagokio, dirulaguntza kobratzeko eskubidea galduko da kasu hauetan:

2. Procederá el reintegro de la subvención recibida y la exigencia del interés de demora correspondiente desde el momento del pago de la subvención hasta la fecha en que se acuerde la procedencia del reintegro y, en su caso, la pérdida del derecho al cobro de la subvención:

a) Oinarri hauetan, emakidaren ebazpenean edo aplikatu beharreko araudian ezarritako betebehar edo baldintzaren bat betetzen ez denean.

a) Cuando se incumpla alguna de las obligaciones o condiciones establecidas en las presentes bases, en la resolución de la concesión o en la normativa de aplicación.

b) 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan edo 34/2010 Foru Dekretuan aurreikusitako kausaren bat gertatzen denean.

b) Cuando se incurra en alguna de las causas previstas en el artículo 33 de la Norma Foral 5/2005, o en el Decreto Foral 34/2010.

3. Itzuli beharreko zenbatekoak zuzenbide publikoko diru-sarreratzat hartuko dira ondorio guztietarako.

3. Las cantidades a reintegrar tendrán la consideración de ingresos de Derecho Público a todos los efectos.

4. Itzuli beharreko zenbatekoei aplikatu beharreko berandutze-interesa 5/2005 Foru Arauaren 34. artikuluan aurreikusitakoa izango da.

4. El interés de demora aplicable a los importes a reintegrar será el previsto en el artículo 34 de la Norma Foral 5/2005.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: YIOX-HQJQ-O8ZF-BHXV
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

5. Itzultzeko prozedura 5/2005 Foru Arauaren II. tituluan eta 34/2010 Foru Dekretuaren III. tituluan xedatutakoaren arabera izapidetuko da.

5. El procedimiento de reintegro se tramitará con sujeción a lo dispuesto en el en el título II de la Norma Foral 5/2005, y en el título III del Decreto Foral 34/2010.

6. Dirulaguntza ematerakoan ezarritako baldintzak ez betetzeak mailakatzeko irizpideak honako hauek izango dira:

6. Los criterios para la graduación de los incumplimientos de las condiciones impuestas con motivo del otorgamiento de la subvención serán los siguientes:

a) Dirulaguntza ematea eragin zuen jarduketarako gastua ez bada xedatzen deialdian ezarritako epean, emandako dirulaguntza osorik galduko da.

a) El incumplimiento de la disposición del gasto para la actuación para la que se otorgó la subvención, en el plazo establecido en la convocatoria, conllevará la pérdida total de la subvención concedida.

b) Dirulaguntza ematea eragin zuen jarduketarako gastua partez xedatzen bada deialdian ezarritako epean, xedatu gabeko zatiari dagokion dirulaguntza galtzea ekarriko du, betiere xedapen partzial horrek diruz lagundutako jardueraren xedea lortzea eragozten ez badu.

b) La disposición parcial del gasto de la actuación para la que se otorgó la subvención, en el plazo establecido en la convocatoria, dará lugar a la pérdida de la subvención correspondiente a la parte no dispuesta, siempre que dicha disposición parcial no impida la consecución del objeto de la actuación subvencionada.

c) Jarduketa gauzatzeko epeak betetzen ez badira, jasotako zenbatekoak eta berandutze-interesak itzuli beharko dira.

c) El incumplimiento de los plazos de ejecución de la actuación conllevará la obligación de reintegro de las cantidades percibidas junto con los intereses de demora.

Hala ere, jarduketak epe orokorrean edo luzapen-epean amaitu ez badira, baina zati bat epearen barruan egin bada, epe barruan egin ez den zatiari dagokion dirulaguntzaren zenbatekoa baino ez da itzuli beharko, baldin eta gauzatze partzialak jarduketaren xedea lortzea eragozten ez badu.

No obstante, cuando las actuaciones no hayan sido terminadas en el plazo general o en el de prórroga, pero alguna parte de ellas hayan sido realizadas en plazo, la obligación de reintegro se limitará a la cuantía de la subvención de la parte no realizada en plazo, siempre que dicha ejecución parcial no impida la consecución del objeto de la actuación.

d) Ekintzak edo gastuak gauzatzean edo justifikatzean ez-betetze partzialen bat gertatuz gero itzuli beharreko zenbatekoa proportzionaltasun-irizpidearen arabera zehaztuko da, kontuan hartuta dirulaguntza emateko ezarritako baldintzen ez-betetzearen garrantzia eta baldintzak zenbateraino bete ez diren.

d) La cantidad a reintegrar en caso de incumplimiento parcial en la ejecución o en la justificación de las acciones o gastos vendrá determinada, con arreglo al criterio de proporcionalidad, atendiendo a la entidad y grado de incumplimiento de las condiciones impuestas con motivo de la concesión de la subvención.

Jasotako beste laguntza batzuekin batera 5/2005 Foru Arauaren 18.3 artikuluan ezarritako gehiegizko finantzaketa gertatuz gero, gaindikinaren zenbatekoa itzuli beharko da, eta dagokion berandutze-interesa aplikatuko zaio.

En el supuesto de sobrefinanciación por concurrencia con otras ayudas contemplado en el artículo 18.3 de la Norma Foral 5/2005, procederá el reintegro por la cantidad excedida, a la que se aplicará el correspondiente interés de demora.

e) Oinarri hauetan ezarritako gainerako betebeharrak betetzen ez badira, emandako dirulaguntza osorik edo zati batean galduko da, oinarrietan xedatutakoaren arabera, eta, berariazko aurreikuspenik ezean, itzuli

e) El incumplimiento del resto de las obligaciones establecidas en las presentes bases conllevará la pérdida total o parcial de la subvención concedida en función de lo que se dispongan las bases y, en ausencia

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: YIOX-HQJQ-O8ZF-BHXV
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

beharreko zenbatekoa proportzionaltasun-irizpidearen arabera finkatuko da, ez-betetzeak lortu nahi den helbururako duen garrantziaren eta interes publikorako duen kaltearen arabera.

de previsión expresa, la cantidad a reintegrar se fijará con arreglo al criterio de proporcionalidad atendiendo a la entidad y grado de relevancia del incumplimiento para la finalidad perseguida y el perjuicio para el interés público.

18. oinarria. *Arau-hausteak eta zehapenak.*

1. Arau-hausteen eta zehapenen araubidea 5/2005 Foru Arauaren IV. tituluan eta 34/2010 Foru Dekretuaren IV. tituluan xedatutakoa izango da.

2. Dirulaguntzei buruzko Foru Arauaren 61. artikuluan aipatzen den zehapen-prozedura administratiboa ofizioz hasiko da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legeak arautzen duena izango da, foru-arau horretan eta Dirulaguntzen Erregelamendua onartzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuan jasotako berezitasunekin.

3. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean (aurrerantzean, 39/2015 Legea), Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen Zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean aurreikusitakoa aplikatuko da, aurrekoen aurka ez doan guztian.

19. oinarria. *Emandako dirulaguntzen publizitatea*.

Dirulaguntza ematen duten administrazio-organoek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dituzte lehia-araubidean emandako dirulaguntzak, ondoko hauek adierazita: deialdia, dirulaguntzak aurrekontuko zer programa eta kredituri egotzi behar zaizkion, pertsona onuraduna, emandako zenbatekoa eta dirulaguntzaren helburua edo helburuak.

Dirulaguntzak ez dira Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko honako kasu hauetan :

a) Emandako dirulaguntzen zenbatekoak, banaka hartuta, 3.000 eurotik beherakoak direnean. Kasu horretan, oinarri arautzaileek beste prozedura batzuen erabilera aurreikusi beharko dute, baldin eta, haien ezaugarri berezien, zenbatekoaren eta kopuruaren arabera, onuradunen publizitatea bermatzen badute.

Base 18. *Infracciones y sanciones.*

1. El régimen de infracciones y sanciones será el dispuesto en el título IV de la Norma Foral 5/2005 y en el título IV del Decreto Foral 34/2010.

2. El procedimiento administrativo sancionador a que se refiere el artículo 61 de la Norma Foral de Subvenciones se iniciará de oficio y será el regulado por la Ley 2/1998, de 20 de febrero, reguladora de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco, con las especialidades contempladas en dicha Norma Foral y en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones.

3. Será de aplicación lo previsto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas (en adelante Ley 39/2015), en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público y en la Ley 2/1998, de 20 de febrero, de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en lo que no se oponga a las anteriores.

Base 19. *Publicidad de las subvenciones concedidas*.

Los órganos administrativos concedentes publicarán en el «Boletín Oficial de Bizkaia», las subvenciones concedidas bajo el régimen de concurrencia con expresión de la convocatoria, el programa y crédito presupuestario al que se imputen, persona beneficiaria, cantidad concedida y finalidad o finalidades de la subvención.

No será necesaria la publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia» la concesión de las subvenciones en los siguientes supuestos:

a) Cuando los importes de las subvenciones concedidas, individualmente consideradas, sean de cuantía inferior a 3.000 euros. En este supuesto, las bases reguladoras deberán prever la utilización de otros procedimientos que, de acuerdo con sus especiales características, cuantía y número, aseguren

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: YIOX-HQJQ-O8ZF-BHXV
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

la publicidad de las personas beneficiarias de las mismas.

b) Dirulaguntzaren xedea dela-eta onuradunaren datuak argitaratzea pertsona fisikoen ohorea, intimitate pertsonala eta familiarra errespetatzearen eta babestearen aurkakoa izan daitekeenean, Ohorerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilari buruzko buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, eta hori arautzen duen araudian aurreikusita dagoenean.

b) Cuando la publicación de los datos de la persona beneficiaria en razón del objeto de la subvención pueda ser contraria al respeto y salvaguarda del honor, la intimidad personal y familiar de las personas físicas en virtud de lo establecido en la Ley Orgánica 1/1982, de 5 de mayo, de protección civil del derecho al honor, a la intimidad personal y familiar y a la propia imagen, y haya sido previsto en su normativa reguladora.

c) Onuradunek publizitate egokia eman beharko dute diruz lagundutako programa, jarduera, inbertsio edo jardueren finantzaketaren izaera publikoari buruz.

c) Las personas beneficiarias deberán dar la adecuada publicidad del carácter público de la financiación de programas, actividades, inversiones o actuaciones de cualquier tipo que sean objeto de subvención.

## II. KAPITULUA
## DEIALDIA

## CAPÍTULO III
## CONVOCATORIA

20. oinarria. *Deialdiari dagokion aldia.*

Deialdia 2024an programatutako jarduketetarako da.

Base.20. *Periodo de la convocatoria.*

La convocatoria responde a las actuaciones programadas en el año 2024.

21. oinarria. *Eskabideak aurkezteko epea eta lekua.*

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, foru-dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita. Eskabideak aurkezteko epea eskabideak elektronikoki aurkezteko gaitutako azken eguneko 13:30ean amaituko da

Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu behar dira eskabideak, egoitza horretan dagoen prozeduraren bidez: www.ebizkaia.eus

Base 21. *Plazo y lugar de presentación de las solicitudes.*

El plazo de presentación de solicitudes será de un mes a partir del día siguiente a la publicación del presente Decreto Foral en el “Boletín Oficial de Bizkaia”. La presentación de solicitudes finalizará a las 13:30 horas del último día habilitado para la presentación electrónica de las mismas

Las solicitudes se presentarán en la sede electrónica de la Diputación foral de Bizkaia a través del procedimiento que figura en dicha sede electrónica: www.ebizkaia.eus

22. oinarria. *Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa.*

Eskabidea betetzen denean, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Abeltzaintzako baliabideen kudeaketarako eta aprobetxamendurako bost urteko planari dagokion dokumentazioa.

Base 22. *Documentación a aportar junto con la solicitud.*

Con la cumplimentación de la solicitud se deberá aportar la siguiente documentación:

a) Documentación correspondiente al Plan quinquenal de gestión y aprovechamiento de recursos ganaderos.

Se deberá presentar en el primer año del periodo

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: YIOX-HQJQ-O8ZF-BHXV
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

Planak hartzen duen bost urteko aldiaren lehen urtean edo aldaketak egin behar direnean aurkeztu beharko da.

Bost urteko plana honako agiri hauek osatzen dute:

Programarekin lortu nahi diren helburuak deskribatzen dituen memoria.

Bertan, honako hauek jasoko dira: zein lurralde-eremutan aplikatuko den; kudeatu beharreko azaleren tipologiaren deskripzioa eta identifikazioa; abeltzainen eta ustiategi erabiltzaileen zerrenda; elkartea osatzen duten ustiategien tipologiaren deskripzioa, animalien erroldarekin batera; abereak eremuetan sartzeko eta eremuetatik ateratzeko egutegia finkatzeko irizpideak; abeltzaintza-interesa duten egitura-elementuen zerrenda, eta aldi horretarako aurreikusitako jarduketa eta inbertsio garrantzitsuenen zerrenda.

Informazio grafikoa: kokapen-mapa, bazkatzeko diren azaleren mapa, belar-sastrakak kentzeko eremuen aurreikuspenaren mugaketa grafikoa, abeltzaintza-interesa duten egitura-elementuen kokapena.

b) Abeltzaintzako baliabideen kudeaketarako eta aprobetxamendurako urteko programa. Dokumentu tekniko-ekonomiko bat da, elkarteak egiteko aurreikusi dituen eta dirulaguntzarako eskabidean jaso ekintzak eta inbertsioak deskribatu behar dituena. Informazio grafikoa erantsi beharko zaio, non jarduketa egiteko aurrez ikusitako eremuen mugaketa grafikoa eta, hala badagokio, aurreikusitako obren kokapena islatuko baitira.

Planaren eta urteko programaren dokumentazio grafikoa, ahal dela, informazio geografikoko sistema (GIS) konbentzionalekin bateragarria den formatu digitalean aurkeztu beharko dira.

c) Mendiaren titularra den administrazioaren emakida edo baimena egiaztatzen duen dokumentazioa, betiere jabea Bizkaiko Foru Aldundia ez bada. Dokumentazio hori programaren bosturteko aldiko lehen urtean soilik aurkeztu beharko da.

d) Larre horien aprobetxamendu-tasen ordainketa egunean dagoela dioen ziurtagiria, betiere larreen jabea Bizkaiko Foru Aldundia ez bada.

e) Banku-helbideratzearen fitxa.

quinquenal que abarca el plan o cuando deban hacerse modificaciones.

El plan quinquenal está compuesto por la siguiente documentación:

Memoria descriptiva de los objetivos a lograr con el programa.

La misma recogerá el ámbito territorial donde se aplicará, descripción e identificación de la tipología de las superficies a gestionar, el listado de personas ganaderas y explotaciones usuarias, descripción de tipología de explotaciones que componen la asociación junto con el censo de animales, criterios para fijar el calendario de entradas-salidas del ganado en las diferentes áreas, una relación de los elementos estructurales de interés ganadero y una la relación de actuaciones e inversiones más relevantes previstas para el periodo.

Información gráfica compuesta de: mapa de situación, mapa de superficies pastable, delimitación gráfica de previsión de zonas de desbrozado, ubicación de elementos estructurales de interés ganadero.

b) Programa anual de gestión y aprovechamiento de recursos ganaderos. Se trata de un documento técnico-económico que debe describir las acciones e inversiones que la asociación prevé realizar y que solicita sean subvencionadas. Irá acompañada de información gráfica en la que se representará la delimitación gráfica de las áreas en las que se prevé actuar; en su caso, localización de las obras previstas.

La documentación gráfica del plan y el programa anual deberá presentarse preferentemente en formato digital compatible con los Sistemas de Información Geográfica (GIS) convencionales.

c) Documentación acreditativa de la concesión o autorización de la administración titular del monte siempre que su propietaria no sea la Diputación Foral de Bizkaia. Esta documentación únicamente se deberá presentar en el primer año del periodo quinquenal del programa.

d) Certificado de estar al corriente del pago de las tasas de aprovechamientos de estos pastos siempre que la propietaria de los pastos no sea la Diputación Foral de Bizkaia.

e) Ficha de domiciliación bancaria, en su caso.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: YIOX-HQJQ-O8ZF-BHXV
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

Interesdunak aurkeztutako eskabidean okerren bat badago edo ezarritako baldintza guztiak betetzen ez baditu, errekerimendua egingo zaio, hamar eguneko epearen barruan okerra zuzentzeko edo derrigorrezko agiriak aurkezteko. Halaber, ohartarazi egingo zaio ezen, hala egin ezean, eskaeran atzera egindakotzat joko dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan xedatutako eran.

Si en la solicitud presentada se advirtiera la existencia de algún defecto o inexactitud, o bien no reuniera todos los requisitos establecidos, se requerirá al interesado para que, en un plazo de diez días, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, previa resolución dictada en los términos previstos en el artículo 68 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre de, del Procedimiento Administrativo Común las Administraciones Públicas.

Edozelan ere, erakunde eskatzaileari eskatu ahal izango zaio aurkeztutako eskabideak ondo ulertu, ebaluatu eta izapidetzeko beharrezkotzat jotako dokumentazio edo/eta informazio osagarri guztia. Arau honetan xedatuta ez dagoen guztian Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean jasotakoa aplikatuko da.

En cualquier caso, se podrá requerir a la entidad solicitante cuanta documentación y/o información complementaria se estime necesaria para la adecuada comprensión, evaluación y tramitación de la solicitud presentada, señalándose que, en lo no previsto en la presente norma, resultará de aplicación lo previsto en la Ley del Procedimiento Administrativo Común las Administraciones Públicas.

23. oinarria. *Eskabidea zuzentzea edo hobetzea.*

Base 23. *Subsanación o mejora de la solicitud.*

Aurkeztutako eskabidean akatsen bat edo zehaztasun-faltaren bat dagoela ikusten bada, edo ezarritako baldintza guztiak betetzen ez badira, interesdunari eskatuko zaio hamar eguneko epearen barruan akatsa zuzentzeko edo nahitaezko agiriak aurkezteko, eta adieraziko zaio, hala egin ezean, atzera egin duela ulertuko dela, Administrazio Publikoen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan aurreikusitako moduan emandako ebazpenaren ondoren.

Si en la solicitud presentada se advirtiera la existencia de algún defecto o inexactitud, o bien no reuniera todos los requisitos establecidos, se requerirá al interesado o interesada para que, en un plazo de diez días, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida su petición, previa resolución dictada en los términos previstos en el artículo 68 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Nolanahi ere, aurkeztutako eskabidea behar bezala ulertu, ebaluatu eta izapidetzeko beharrezkotzat jotzen den dokumentazio eta/edo informazio guztia eskatu ahal izango zaio eskatzaileari. Arau honetan aurreikusten ez den guztian, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean aurreikusitakoa aplikatuko da.

En cualquier caso, se podrá requerir a la persona solicitante cuanta documentación y/o información complementaria se estime necesaria para la adecuada comprensión, evaluación y tramitación de la solicitud presentada, señalándose que, en lo no previsto en la presente norma, resultará de aplicación lo previsto en la Ley del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

24. oinarria. *Aurrekontuko diru-izendapena.*

Base 24. *Consignación presupuestaria.*

Foru-dekretu honen babesean eman daitezkeen dirulaguntzen zenbateko osoak ezin izango du gainditu, inolaz ere, programa honen 2024ko ekitaldi ekonomiko aurrekontu-izendapenaren zenbatekoz. Era berean, ezin izango ditu gainditu indarreko legeriaren arabera aurrekontuan egindako aldaketak direla-eta sortutako eguneratzearen ondoriozko zenbatekoa.

La cuantía global de las subvenciones que pueden otorgarse con arreglo a este Decreto Foral no podrá superar en ningún caso, el importe de la dotación presupuestaria del ejercicio económico del 2024 o de los que resulten de su actualización en el caso de que se aprueben modificaciones presupuestarias conforme a la legislación vigente.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: YIOX-HQJQ-O8ZF-BHXV
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

| KUDEAKETA ZENTROA / CENTRO GESTOR | PROGRAMA / PROGRAMA | SAILKAPEN EKONOMIKOA / CLASIFICACIÓN ECONÓMICA |
|---|---|---|
| 0205 | 412103 | 45100 |

2024. urteari dagokion ekitaldirako, 200.000 €-ko aurrekontu-kopuru zenbatetsia dago.

Hala ere, ebatzitako eskabideak kontuan hartuta, eta pertsona eta erakunde onuradunak era askotakoak izan daitezkeenez, foru-dekretu honen bidez ezarritako diru-izendapenak foru-dekretu honetan adierazten diren partiden artean banatu ahal izango dira, foru-agindu bidez.

Indarrean dagoen legedian xedatutakoaren arabera, deialdi honetan aplikatzeko zenbateko gehigarriak izango dira Dirulaguntzen Erregelamendua onartzen duen martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 43. artikulua aplikatuz erabilgarri dauden kredituak, gehienez 3.000.000 euroko zenbatekora arte. Foru-agindu bidez, erabilgarri dauden kredituen adierazpena eta haien behin betiko banaketa argitaratuko dira, dirulaguntzak emateko ebazpena onetsi baino lehen. Halere, horrek ez du ekarriko eskaera berriak aurkezteko epea zabaltzerik.

Deialdiaren aurrekontu-izendapena eskaera guztietarako nahikoa ez bada, eta organo eskudunak modu proportzionalean banatu badu dirulaguntzetarako gehieneko guztizko zenbatekoa dirulaguntzaren onuradunen artean, gerora kreditu-gehikuntzarik egiten bada, deialdiari ebazten duen ebazpenean dauden proiektuak finantzatzeko erabiliko da gehikuntza hori, diruz lagundu ez den zatian, modu proportzionalean, dirulaguntzaren onuradunen artean.

Para el ejercicio correspondiente al año 2024 se consigna una cantidad presupuestaria total estimada de 200.000 €.

Ello, no obstante, en función de las solicitudes resueltas y dada la distinta naturaleza de las posibles personas y entidades beneficiarias, las citadas consignaciones establecidas en este Decreto Foral podrán redistribuirse mediante Orden Foral entre las partidas señaladas en este Decreto Foral.

De conformidad con lo dispuesto en la legislación vigente, tendrá carácter de cuantía adicional para su aplicación en esta convocatoria aquellos créditos disponibles en aplicación del artículo 43 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, hasta un importe máximo de 3.000.000 €. Mediante Orden Foral se publicará la declaración de créditos disponibles resultantes y su distribución definitiva, en un momento anterior a la resolución de las concesiones de las subvenciones, sin que ello implique la apertura de plazo para presentar nuevas solicitudes.

En el caso de que la dotación presupuestaria establecida no hubiera alcanzado para atender a la totalidad de las solicitudes, y el órgano competente hubiera procedido al reparto proporcional entre las personas beneficiarias de la subvención del importe global máximo destinado a la subvención, los eventuales aumentos sobrevenidos de crédito se destinarán a financiar, en la parte que no hubieran sido atendidos, los proyectos que figuren en la resolución que resuelva la convocatoria, de manera proporcional, entre las personas beneficiarias de la subvención.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: YIOX-HQJQ-O8ZF-BHXV
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: